

Kronika TOKIKOM

2019ko azaroaren 14a, osteguna 6.932 zk. www.kronika.eus

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ ASTIGARRAGA IBAI PARKEA

Inaugurazioa, bertan behera

Astigarragako Udalak jakinarazi du gaurko aurreikusita zegoen Andre Gobadarien parkearen inaugurazioa ez dela egingo, eta bertan behera geratu dela, eguraldi txarra dela-eta. Aurre-rago zehaztuko data berria. ||

■ HERNANI LANGILE IKASTOLA

Txartelak salgai, ostegunero

Ikasle ohien bazkaria egingo dute maiatzaren 23an Langile ikastolaren 50. urteurrenaren bueltan. Joan nahi duenarentzat, ostegunero izango dira txartelak saltzen Biteriko sarreran. ||

■ HERNANI KONTRAKANTXA

Ikasle Eguna, etzi

Ikasle Eguna egingo dute larunbatean, Kontraktantxa gaztetxean. Tartean, bazkaria izango da, eta joan nahi duenak, Goiz Argi tabernan erosi ditza-ke txartelak, 8 euroan. ||

■ HERNANI EH BILDU

Bilera gaur; eta eskerrak, bozkatu zietenei

Igandeko hauteskondeen aurrean, eskerrak eman ditu Hernaniko EH Bilduk bozkatu zietenei. Bestalde, batzarrerako zita jarri du gaurko; 19:00etan izango da, Andre kale 24ko Bilgunean. ||

■ HERNANI HERNANI ERABAKI

Postua, Plazan

Eguraldi txarra dela-eta, Plazan jarriko dute, eta ez Plaza Berrin, Hernani Erabaki prozesuan informazioa jaso eta bozkatzeko postua. 16:30etatik 18:30etara jarriko dute. ||

■ ASTIGARRAGA XAGUXAR

Izena, bihar arte

Bihar arte eman ahal izango dute izena gaztetxoek, Xaguxar taldeko negulekuean. Kultur etxean egin behar da. ||

■ HERNANI ERREMONTEA

Binakako txapelketa martxan, gaurtik

Uterga-Azpiroz eta Juanenea-Barrenetxea IVren arteko norgehiagokarekin hasiko da Binakako Erremonte Txapelketa nagusia. Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera izango da, Galarretan.

HERENEGUN aurkeztu zuten 49. Binakako Erremonte Txapelketa nagusia. Gaur izango da lehenengo partidua, Uterga-Azpiroz eta Juanenea-Barrenetxea IVren aurka jokatzuz hasiko dute ligaxka. Gaur emango zaio hasiera eta abenduaren 28an izango da final handia.

Bost bikote, lehian

Bost bikote izango dira aurtengo ligaxkan: Uterga eta Azpiroz; Urriza eta Larrañaga; Matxin III eta Endika; Ansa II eta Ion; Juanenea eta Barrenetxea IV.

Gaur hasiko da ligaxka, eta abenduaren 7ra arte iraungo du. Ondoren, ligaxkako finalerdiak jokatu dira, abenduaren 12tik 21era. Eta finala, abenduaren 28an izango da.

Partiduak ostegun eta larunbatean jokatu dira, eta aurkezpenean azadu zuten, aurreko urteetako puntuazioak aldatu egingo dira; irabazlearentzat (40 tanto) 4 puntu; 36-39 tanto bitartean egin dituztenentzat 2 puntu; 32-35 tanto bitartekoei puntu bakarra; 26-31 tanto lortzen dutenentzat ez dago punturik; eta 25 tanto azpitik egiten duenak puntu bat gutxiago izango du.

Puntuazio gehien lortzen duten hiru bikote pasako dira finalak jokatzera. Eta hortik, bi bikotek jokatu dute final handia.

Finalerdiak eta finala

Hiru bikotek jokatu dute finalerdia, beraz, hiru partidu jokatu dira: abenduaren 12an lehena, bigarrena abendu-



49. Binakako Erremonte Txapelketan jokatu duten zenbait erremontista. Argazkia: Maialen Andres.

Abenduaren 12tik 21era bitartean jokatu dira finalerdiak eta abenduaren 28an final handia izango da.

duaren 14an eta azkena abenduaren 21ean.

Finalerdietako lehenengo partiduan irabazi duen bikoteak, hirugarren bikotearen aurka egingo du bigarren partiduan, eta abenduaren 21ean, lehenengo partiduan galdu zutenaren aurka egingo du be-

Banakako saria ere banatuko da; Txapelketako jokalarionenari emango zaiona, hain zuzen.

rriro ere hirugarren bikoteak.

Finalerdiak bukatuta, bi bikote onenek osatuko dute finala, abenduaren 28an. Eta aurkezpenean adierazi dute, finaleko pelotariren bat lesionatuz gero, hirugarren bikotea pasako dela finalera.

Beraz, abenduaren 28an,

larunbata, erabakiko da zein bikotek jantziko duen 49. Binakako Erremonte Txapelketa Nagusiko txapela.

Onenei, saria

Finaletan ohikoa den moduan, sariak banatuko dira, eta bi sari banatuko dituzte finala irabazi duten aurrelari eta atzelariarentzat. Horrez gain, bigarren postuan geratu direnentzat ere banatuko dira sariak.

Eta banakako bat ere egongo da, Txapelketako jokalarionenari emango zaiona hain zuzen. ||

49. BINAKAKO ERREMONTE TXAPELKETA NAGUSIA 2019

Orona fundazioa

%60

Hernaniar guztiak beherapena (sarrera:10€)

AZAROAK

14

Osteguna
16:00h.

ERREMONTEA BIZIRIK

UTERGA
AZPIROZ

VS

JUANENEA
BARRENETXEA IV

etxe onenak

ORIAMENDI
2010

galarreta

Kronika

2019ko azaroaren 14a, osteguna
6.932 zk. www.kronika.eus

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte Lan-taldea: A. Arbelaitz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, B. Los Arcos, A. Moreno, J. Osa, M. Ramirez de Alda, L. Rekondo eta J. Zubitur.
Egoitza: Laramendi 11, Hernani 943 33 08 99 - 688 660 714 Eposta: kronika@kronika.eus eta publi@kronika.eus Lege gordailua: SS-1469-2018. ISSN: 2659-5036

EGURALDIA GAUR Negu ibura hartuko du gaur eguraldiak. Goizaldean elur-kota bizkor jaitsiko da. Goizaldean prezipitazioa ugaria izango da, baina goiz partean atsedena bat egongo da, eta tarte handi batean ateri mantenduko da. Arratsaldetik aurrera, zaparradak espero dira. **Min.6° / Max.10°**

BIHAR Bihar eguraldia zakartu egingo da, orokorrean temperatura apur bat jaitsiko da. Giro ezezagunaren ondorioz zaparradak botako ditu. Ekaizta egin dezake eta kazkabarra ere. Haize bolada gogorak espero dira. **Min.5° / Max.10°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** Gaez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI HEZKUNTZA ESKOLA

Amher elkarteko kideak, hizlari

Gaur arratsaldeko 17:30etan, hezkuntza eskola antolatu du Hezkuntza Plataformak, 'Jatorri ezberdinak. Bizi ibilbideak' izenburupean.

HEZKUNTZA Plataformaren eskutik, beste eskola bat eskainiko dute gaur arratsaldeko 17:30etan, udaletxeko areto nagusian.



Urrian egin zen Hezkuntza Eskolako saloan.

Oraingoan, AMHERreko kideak izango dira hizlari, Jatorri ezberdinak. Bizi ibilbideak izenburupean. Jatorri ezberdinetako hernaniarren ibilbide pertsonalak partekatzeko aukera izango da.

Saio irekia izango da gaurkoa eta antolatzaileek herritar guztiei luzatu nahi diete gonbitea, AMHERreko kideen esperientziak ezagutzeko. Hezkuntza plataformakoek azpi-

marratu dute; «benetan aberasgarria» izango dela «gu guztiontzat». Joan nahi duenarentzat, zaintza zerbitzua ere izango da eskura. ||

HERNANI FELIX UGARTE ELKARTEA



Gazte nahiz helduak izan ziren bisitariak, igandean.

80 lagunetik gora igandean, Iturmendiko jentilzuloa bisitatzen

Felix Ugarte espeleologia elkarteak antolatuta, igandean ireki zioten Iturmendiko jentilzuloa herritarrei. Nahiz eta eguraldi txarra egin, herritar ugari bertaratu ziren kobazuloa gertutik ikustera. Antolatzaileek adierazi dutenez, 80tik gora lagun pasa ziren handik, goiz osoan zehar, eguerdira bitarte. ||

HERNANI MEDALLA MILAGROSA

Urteko Batzarreko deia, bilerarako

Urteko Batzarreko deia egin dute, Medalla Milagrosa zeladore eta zaintzaileek. Gaur izango da, arratsaldeko 17:00etan, Inmakulada Ikastetxean. Bertaratzeko eskatu dute. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

Edorta Muñoa Marcos
Muxu haundi bat
ZURE ILOBAK: AITOR, UNAI, ASIER, HAIZEA ETA XABI
Hernanin, 2019ko azaroaren 14an

EDORTA MUÑOA MARCOS
Familiari agurrik beroena.
HERNANI BHI INSTITUTUKO GURASO, IKASLE, IRAKASLE ETA LANGILE EZ IRAKASLEAK
Hernanin, 2019ko azaroaren 14an

EDORTA MUÑOA MARCOS
Zure bizitzan gure indarra. Mendi tontoretan eta izarren hautsan berriro ere elkar bilduko gara. Gero arte, LAGUN...
ZURE KOADRILA
Hernanin, 2019ko azaroaren 14an

EDORTA MUÑOA MARCOS
Besarkada haundi bat familia guztiari.
HARITZEN KOADRILA
Hernanin, 2019ko azaroaren 14an

IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko.
Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)
Pisua eta trasteroa salgai Lizarraga kalean, Lizeagan, 2 logela, sukaldea, sala eta komuna.
Deitu: 659 106 467
Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

AKELENEA
Ertegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Menua
3 hasierako
Arraia
Haragia
Postrea, ogia, kafea

Koldo eta Fina
27€ (BEZ barne, edaria aparte)
Enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTZALADAK
PLATER KONBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 · HERNANI
943 555 724

Afari maridatua Ipintza sagardotegian

Kalitatezkoa bada, gorria da

Euskal Sagardo gonbidatuak eta Ipintzako menuarekin

Azaroaren 22an · 20:30
Prezioa 35€
Lekua erreserbatzeko: 688 811 724 (Ipintza).
*Plaza mugatuak dira